

han-hemen

Animalien zikiratze eguna ospatu dute Buenos Airesen


Etxeko animalien zikiratze eguna ospatu zuten herenegun Buenos Airesen, Argentinan, animalien osasunaren alde lanean diharduen Almirante Brown elkarteak deituta. Hala, jendaurrean katuak eta txakurrak zikiratu zituzten, operazio-gela ibiltari batean, eta edozeinek etxeko txakurra eta katua eramateko aukera izan zuen, baita operazioa zuzenean ikustekoa ere. Dena dela, oso gutxi ikusi nahi izan zituen albatarien operazioak zuzenean. «Zikiratzeak gainpopulazioa eta gaixotasunak ekiditen ditu», diote ekimenaren bultzatzaileek.

Ezindu fisikoen hautagaiak 40 metroko jauzia egin du

Jorge Ivan Gil Sanchez ezindu fisikoa Kolonbiako Hautagaien Kamerako hauteskundeetara aurkeztuko da, ezindu fisikoen ordezkari moduan. Gil Sanchezek, hautagaitzaren aurkezpen moduan, 40 metroko zubi batetik jauzi egin zuen, Pereira hirian, goma batetik lotuta. Zubi horretatik salto egin da 49 lagunek egin dute beren buruaz beste azken urteotan. «Goma-jauzia egitea gomendatuko nieke beren buruaz beste egin nahi dutenei», esan zuen Gil Sanchezek.

Mel Gibson eta Bush, elkarrekin zinema ikusten

Mel Gibson aktoreak George W. Bush AEBetako presidentearekin ikusiko



DUISBURG ZOO / AP

Delfin gatibuaren kumetxoa


Pepina izeneko delfinak ume bat izan du Duisburg zooan. Urrian jaio zen delfin kumea, eta atzo erakutsi zuten lehenengo aldiz jendaurrean. Oso arraroa da gatibu dagoen delfin batek umea edukitzea, adituek jakinarazi dutenez.



ALASTAIR GRANT / AP

Londresko polizia, motozikleta elektrikoarekin

Argazkikoa Carle Drake polizia da, Londreskoa. Elektrizitatearekin dabilen motozikleta erabili ohi dute poliziakideek. Nahi izanez gero, pedalei eraginez azkarrago ibiltzeko aukera daukate.



BRUNO BEBERT / AP

Kirolarien omenezko eskulturak

Korrikalari bat Tony Gwyn beisbol jokalaria eskainitako eskulturaren aurretik pasatzen ageri da argazkian, Nizan. Erakusketa horretan munduko kirolari onenei eskaini dizkiete eskulturak — Michael Jordani, Tiger Woodsi eta abar —, eta Ameriketako indiarren ezaugarriak gehitu dizkiete eskultura horiei.

du *We were soldiers* filma, Etxe Zurian. Vietnamgo gerrari buruzko filma da, eta, azken hilabeteotako *sukar patriotikoari* jarraiki, Armadako agintari batzuk ere haiekin izango dira.

txitzea nahi dute. Kamera dezente jarriko dira, eta zortzi polizia egongo dira irudiei begira.

Tokioko 'sexuaren auzoko' bisitariak zelatatzen

Tokioko Kabukicho auzoko bisitariak zelatatu egin go dituzte hemendik aurrera, kamera batzuen bidez. *Sexuaren auzoa* deitzen diote auzo horri, adin nagusikoentzako klub asko daudelako, besteak beste. Poliziak jakitera eman duenez, zelatari lan bidez gaiztakeria gu-

Epaile afroamerikar bati eginiko errekonozimentua, 113 urte eta gero

James Dean epaile afroamerikarra lanetik bota zuten duela 113 urte, 1889an —Floridako Cayo Huesoko epaitegian egiten zuen lan—. Orain, mende bat geroago, Floridako gobernadoreak, Jeb Bushek, epaileari berriro lanpostu hori *ematea* erabaki du, «arrazoirik gabe bidali zutelako». Dean, jakina, hil da dago.

hilberriak

ESKELAK

Gaueko 9ak arte hartzen dira

(0034) 943 300 222

Atzo hil zen, 84 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

— Goian Bego —

Nabiz eta gure artetik urrutira joan, beti izango zaitugu gure bihotzean

Ladislao Zalakain Arrue
JAUNA

ZURE BILOBAK:
NAIARA ETA GORKA, IÑIGO, EGOITZ ETA ILAZKI

Tolosan, 2002ko otsailaren 28an

Atzo hil zen, 84 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

— Goian Bego —

Bere emaztea: M^a Cruz Irulegi Aguirretxe; seme-alabak: Jose Luis (P), Izaskun eta Jesus M^a Berasategi, Alfonso eta Ana Erbiti; bilobak: Naiara, Iñigo, Egoitz eta Ilazki; anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren arimaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela **GAUR OSTE-GUNA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN**, Tolosako **SANTA MARIA** parroki elizan, egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea: Pablo Gorosabel, 19-5. esk.

Oharra: Gorpu beila Tolosaldeko Tanatorioan dago. Gorpu laguntza gaur arratsaldeko 5etan egingo da.

Ladislao Zalakain Arrue
JAUNA

Tolosan, 2002ko otsailaren 28an